

BERRIKUNTZA + IKERKETA + OSASUNA EUSKO FUNDAZIOAREN (BIOEF) HAURREN MINBIZIAREN IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Proiektuen ezaugarriak:

- UPV/EHU onuradun izan daitekeen proiektuak "Haurren minbiziaren ikerketa biomedikoko proiektuak" ildokoak baino ez dira izango. Deialdi honen ondorioetarako, ikerketa biomedikotzat hartzen da oinarrizko ikerketa (gaixotasunera bideratua), ikerketa klinikoa (pazienteari bideratua), ikerketa epidemiologikoa, osasun publikoan eta osasun-zerbitzuetan, bai eta osasuna edo ikerketa biomedikoko prozesuak eta teknologiak hobetzera bideratutako garapen teknologikoa ere.
- Edozein kategoriatan akreditatutako ZTBESko agenteak izango dira onuradunak, eta ezinbesteko baldintza izango da ZTBESen osasun-ikerketako zentroen kategorian akreditatutako agente batek gutxienez parte hartzea.
- Iraupena: 2 eta 3 urte artekoa.
- Bi proiektu modalitate daude:
 - a) Sortzen ari diren taldeen sustapena: 1974. urtean edo beranduago jaiotako eta deialdi lehiakor bidez finantzatutako proiektuetan ikertzaile nagusi gisa lehenago parte hartu ez duen ikertzaile nagusi bat duten taldeek garatutako proiektuak.
 - b) Ohiko taldeen ikerketa biomedikoko proiektuak: sortu berriak jotzen ez den ikertzaile nagusi batek (1974. urtea baino lehenago jaiotakoa) zuzentzen duen ikerketa talde batek garatutako proiektuak.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- Proiektu bakarra aurkez dezake ikertzaile nagusi gisa.

Ikertaldeko hideak bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.
- Obra edo zerbitzuagatik kontratatutako ikertzaileek (PIC) ezin izango dute deialdi honetako taldeetan parte hartu.

Laguntza modalitate honetara bideratutako zenbatekoa:

627.524,31 euro.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHU n aurkeztutako eskaerak zeharkako kostuen %10a jaso beharko dute aurrekontuan (zuzeneko kostuen gainean kalkulatuta).

Eskaerak aurkezteko era:

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira. Eskaera bakarra aurkeztuko da proiektu bakoitzeko. Proiektu koordinatuen kasuan koordinatzaile gisa jarduten duen erakundea arduratuko da eskaera bidaltzeaz. Ikerketaren arloko Errektoreordetzako langilegoa arduratuko da eskaerak aplikazioaren bidez aurkezteaz UPV/EHU koordinatutako proiektu baten lider gisa doan proiektuen kasuan. Horretarako, ikertzaile nagusiek deialdiko 8.6.I artikuluan adierazitako dokumentazio guztia bidali beharko dute hurrengo e-maila helbidera, convocatorias.dgi@ehu.eus; hori egiteko **azaroaren 12ra arteko** epea izango dutelarik.

Eranskinetako txantiloiak [esteka](#) honetan jaits daitezke.

Eskaerak aurkezteko epea:

2020ko azaroaren 19ra arte

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2020/haurren_minbiziaren_ikerketak_proiektuak/web01-tramite/eu/

BIOEFekin harremanetan jartzeko:

Maria Pertika E-maila: pertika@bioef.org Tel.: 94 453 61 41	Miriam Amezaga E-maila: miriam@bioef.org Tel.: 94 453 10 33	Olatz Sabas E-maila: olatz@bioef.org Tel.: 94 453 61 43
---	--	---

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

Tel.: 94 601 80 08

E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus